


Eskola irekia

Zehar aldizkari honek “Hezkuntza (tokiko erakundea)” gaiarekin *documenta 12 magazines* proiektuan parte hartzeko arrazoia hauxe izan zen: Artelekuk — aldizkari hau editatzen duen erakundeak— bide luzea zuela egin formazio arloan. Berezitasun honek aukera eman zigun Artelekuko jardunaren azterketatik abiatuta heziketa berari heltzeko, eta esperientzia hori *Zehar* honetara ekartzeko. Esperientzia editoriala “Eskola irekia” izendatu dugu.

“Eskola irekia”, alde batetik, aldizkaria bertan parte hartu duten pertsoneri, hezkuntzarekin erlazio zuzena duten horiei, zabaltzeko gogoaren isla da, eta, bestetik, eztabaida gune bat sortzeko gogoaren isla, eztabaida horrek eraginik izango duelakoan. Oraingoan, paperezko lehen bertsioa dakarkigu. Bertan, lankide bakoitzak bere heziketa jarduna azaltzen du, bere bakarkako edo taldekako esperientziak beste batzuk sorraraz ditzaten xedearekin; bigarren bertsio batean, berriz, interneten bateratze lan bat egingo da. Eta, nahiz hasiera batean uste izan genuen eztabaida-lekuan egin genituen galderak eztabaida gaiak mugatu zitzaketela, ikusi dugu, harriturik ikusi ere, hitz egiten duenaren posizioak (artearen historialaria, irakaslea, artista edo komisarioa), eta diziplinak eta baita esperientzia berak ere (arkitektoa, ikusizko artista, irakaslea, musikaria) baldintzatu egiten dituztela bai erantzunak, bai haiei heltzeko modua.

“Eskola irekia”-rekin sustatu nahi genuen ikasketa mota “*école mutuelle*” izeneko ideian zegoen. Hain zuzen, desberdinen arteko eta elkarren arteko laguntzan oinarritutako hezkuntza proiektua da. Zentzu honetan, kolaboratzaile guztiek diote, modu eszeptikoan nahiz baikorki, artearen heziketak lagundu egingo lukeela kulturari begira gizarte osasuntsuago bat izaten, nahiz eta dioten, egun heziketa horrek sozialki balioa galdu duela.

Utz ditzagun hor editorialaren iritziak. Azken batean, kolaborazioak osoki irakurtzera eta uztailean egingo dugun eztabaidan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Ziur baikaude zuen iritziak eta zuen praxiak, jada geureganatu ditugunekin batera, beste hezkuntza esperientzia bat osatuko dutela.



Miren Eraso